

Mixel Etxeber

*Pagola,
Zuberoa (1947)*

Aurkibidea

Biografia



Laboraria, eta beti Pagolan
bizi izana, Etxeonian.
Auzapeza izana. Historiazale
amorratua, Bigarren Mundu
Gerrako kontuez asko daki.

Zintak

PAA-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aire, Xan - Elortza, Kepa

- **Data:** 2010-02-16
- **Iraupena:** 51 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. II. Mundu gerla hasieran zona libre eta okupatua Iparraldean

- **Erref:** PAA-001/001
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Pagola herria kokatzen du: Donapaleuko kantonamendua, Baionako subprefektura... Baina II. Mundu gerla hasieran, "zone libre" eta "zone occupée" zeuden. Huartehiri alemanen eremua zen eta Pagolan, berriz, frantses soldaduak zeuden. Pagola Oloroeko subprefekturakoa izatera pasatu zen. Maulekin harreman estua zuen.

2. Alemaniara lanera joan nahi ez zuten gazteak ezkutatuta

- **Erref:** PAA-001/002
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:01:56. **Bukatu:** 00:04:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Alemanek Frantzia dena okupatu zutenean, eskulangileak behar zituzten Alemaniako fabriketan lan egiteko, eta hemengo gazteen bila hasi ziren. Baina hauek joan nahi ez zutenez, gorde egiten ziren sabaletan, mendiko etxoletan eta abar. Gauez irteten ziren jan bila eta beren egitekoak egitera. Orduan hasi zen erresistentzia.

3. Erresistentzia laborarien etxeetara jan bila

- **Erref:** PAA-001/003
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:04:36. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Erresistentzian "zuriak" (Frantziako armadaren ingurukoak, eskuinekoak) eta "gorriak" zeuden. Inork ez zuen esaten erresistentzian zebilenik, gauza klandestinoa baitzen. Jatekoa bilatzea zen euren eginkizunetarikoa bat, eta horregatik ez ziren beti maitatuak erresistentak. Laborariek nahikoa lan bazuten euren buruak mantentzen, eta gainera erresistentzia elikatu behar...

4. Merkatu beltza eta mugalariak

- **Erref:** PAA-001/004
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:08:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Alemaniarren alde edo kontra ibiliak

Laburpena:

<p>Hiritarrak, goseak eraginda, herrietara etortzen ziren oinez merkatu beltza egitera. Baserriko produktuak errazionamendu tiketekin eta abar trukatzeko zituzten. Gordetako jendea, erresistentak, merkatu beltzean zebiltzanak, denetarikoa jendea mugitzen zen batetik bestera. Juduak, hegazkin-pilotuak eta abar mugaz bestaldera eramaten zituzten mugalariak ere baziren.</p>

5. Gerla finitu zenean denak erresistentak

- **Erref:** PAA-001/005
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:08:16. **Bukatu:** 00:10:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Patainzaleak (kolaboratzaileak) erresistentak bihurtu ziren gerra amaitzeko zegoenean. Kalte egindako jende gehiena inolako zigorrarik gabe geratu zen. Pagolar baten kasua kontatzen du. Merkatu beltzean aritu izanagatik sei hilabeteko espetxea izan zuen. Harrezkero, jendeak ez omen zuen maite eta Ameriketara alde egin behar izan zuen. Pagolan ez zen emakumerik zigortu alemanekin ibiltzeagatik, beste zenbait herritan bezala.

6. Pagolako bi erresistentzia-sareen arteko tirabirak

- **Erref:** PAA-001/006
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:10:22. **Bukatu:** 00:12:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Pagolan bi erresistentzia-sareetako kideak zeuden (zuriak eta gorria), eta elkar hartu bazuten ere etsai komunaren aurka, momentu batzuetan tirabira handiak izan zituzten. Argindarra nola sortzen zuten pedalei eraginez.

7. Alemanek Maule bonbardatu

- **Erref:** PAA-001/007
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:12:10. **Bukatu:** 00:14:02

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

1944ko agorrilean alde egin zuten alemanek, baina ihesi zihoazela erresistentziak eraso eta hildako eta zauritu anitz eragin zien. Mendekuz, hegazkin aleman batek Maule bonbardatu zuen. Jende anitz heldu zen Pagolara, ihesi, amak kontatzen zionez.

8. Atharratzeko brigada alemana makiei errendatu

- **Erref:** PAA-001/008
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:14:02. **Bukatu:** 00:16:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Atharratzen zuten alemanek mendiko gendarmeria. Ahuski, Irati eta inguruetako mendiak erresistentziaren ezkutalekuak ziren. Altzürükün-eta maki istorio ugari dago. Atharratzeko brigada alemana errendatu egin zitzairen makiei. 70 bat soldadu aleman preso eduki zituzten pare bat hilabetez.

9. Apaiza bitartekari alemanen eta erresistentziaren artean

- **Erref:** PAA-001/009
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:16:18. **Bukatu:** 00:18:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Mauleko bonbardaketa gertatu zen garaian Atharratzen brigada aleman oso bat, 70 bat soldadu, preso hartuta zeukan erresistentziak. Negoziaketan Etxebers abizeneko apaizak egin zuen bitartekari. Preso hartutako alemanak Genevako hitzarmenaren arabera tratatu zituzten, eta horren ondorioz alemanen jarrera apaldu egin zen Maulen. Gero, Gurs-eko kontzentrazio eremura eraman zituzten presoak.

10. Frantziak espainiar estatuko makiak traditu

- **Erref:** PAA-001/010
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 00:18:14. **Bukatu:** 00:21:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Erresistentziako kontuez oso gutxi idatzi eta ikertu da orain arte. Estamentu ofizialek ere ez dute aipatu nahi izaten Iparraldeko erresistentzia. Espainiako

gerraren ondorioz ihes egindako nazionalista eta errepublikazaleek asko lagundu zioten erresistentziari; Frantziak hauei agindu zien alemanak garaitzen zituztenean Franco botatzen lagunduko zietela. Makia oso ondo antolatuta zegoen 45-47 urteetan. Irati, Larrañe eta inguru horietatik bestaldera pasatu ziren, baina ez zuten Frantziaren aldetik agindutako laguntzarik jaso eta porrot egin zuten.

11. Larraineko kontrabandistarekin izandako solasa

- **Erref:** PAA-001/011
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:21:43. **Bukatu:** 00:23:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Gai hauetaz ez omen du jendeak mintzatu nahi. Behin kontrabandista izandako larrainetar batek erdi sekretuan kontatu zion ehunka maki pasatzen zirela batetik bestera. Pirinio guztian izan ziren makiak, baina alderdi honetan bereziki: Santa Garazi, Larraine, Irati, Baigorri...

12. Petain mariskala, "Frantziaren salbatzailea"

- **Erref:** PAA-001/012
- **Iraupena:** 0:04:39. **Hasi:** 00:23:05. **Bukatu:** 00:27:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Auzapezak eta handiki guztiak Petain zaleak ziren (kolaborazionistak). 14ko gerran Petain Jenerala izan zen garaile, eta aldare batean zuten frantsesek. Alemanek 39an gerra deklaratu zutenean, Petainengan jarri zituzten esperantza guztiak. Petainenek ikusi zuenean ezin zituela alemanak gelditu, negoziatu egin zuen. Baina gero haien mendeko geratu zen guztiz. Golistak eta komunistak izan ziren ia erresistentia bakarrak. Eliza ere Petainen alde zegoen guztiz. De Gaulle-ren berri handirik ez zen hemen, irratirik ere ez baitzegoen. Baina gorriak ugari ziren Zuberoan, Mauleko espartin fabrikako langileen eraginez. Azken aldera armada De Gaulleren alde jarri zen.

13. Pagolar gutxi erresistentzian

- **Erref:** PAA-001/013
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:27:44. **Bukatu:** 00:29:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Isilik egotea izan zen jendearen jokaera. Inor ez zen inorekin fidatzen. Salatzailerik ere ez zen izan, baina erresistentzian aritu zirenak ere gutxi Pagolan. Bost bat familia, asko jota.

14. Erresistentziaren armak

- **Erref:** PAA-001/014
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:29:10. **Bukatu:** 00:32:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Alemanek etxeko armak entregatzeko agindu zutenean, inork ez zuen obeditu. Horiek izan omen ziren erresistentziaren lehen armak. Gero alemanei kendutakoak, exerzitoko jendearenak. Eta "gorriek", berriz, 36ko Espainiako gerlatik zetozenak eta abar. Irakurri duenez, Biarno aldean behin edo behin bota zizkieten armak hegazkinetik. Dena dela, arma gutxi zuen erresistentziak: pistolak eta fusilak, eta ametrailadora banaka batzuk bakarrik.

15. Gorriak mendialdean nagusi, Zuriak ordokian

- **Erref:** PAA-001/015
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:32:15. **Bukatu:** 00:33:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Erresistentziako militanteen kopurua ezin jakin, baina Atharratzeko aleman brigada atzeman zutenerako handia izango zen. Herrietan bere informatzaile sare propioa zuen talde bakoitzak. "Gorriak" mendi aldean nagusi ziren eta armadaren inguruko "zuriak", golistak, ordokian, Biarno aldean.

16. Erresistentziak gerra-ekintza handirik ez

- **Erref:** PAA-001/016
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:33:42. **Bukatu:** 00:36:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Pagolatik hurbileko erresistentziaren gordelekuak non ziren azaltzen du. Hasieran ez zuten ekintza handirik egin, argindar linea moztu eta horrelakoak soilik. Begirale eta mugalari lanak egiten zituzten gehienbat. Noiz edo noiz alemanen bat edo beste hil ere bai, aurrez aurreko enfrontamenduetan.

17. Juduak muga pasatzen Zuberoko mendietatik

- **Erref:** PAA-001/017
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:36:42. **Bukatu:** 00:37:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika » II. Mundu Gerra \(1939-1945\)](#)

Laburpena:

Judu iheslariak Maulera ekarri ohi zituzten lehendabizi ezkutuan, eta gero mugalariei laguntzaz Pirinioak zeharkatu. Espainiatik beste herrialde batzuetara joango zirela uste du.

18. Gazte iheslariak Espainiara lehendabizi, Afrikara gero

- **Erref:** PAA-001/018
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:37:58. **Bukatu:** 00:41:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika » II. Mundu Gerra \(1939-1945\)](#)

Laburpena:

Alemaniarak lanera joan nahi ez zuten gazteak Espainiara pasatzen zirenean, beren burua entregatzen zuten. Kontzentrazio eremuetan, Mirandan, esaterako, edukitzen zituzten hilabete batzuk, eta gero Portugalera edo Afrikara igortzen zituzten, ez zituzten Frantziara itzultzen. Hori ona zela, dio. Frantziak oso eskertuta egon behar lukeela, dio, Afrikak babestu zituelako garai zail haietan. Jendea ez zen gehiegi ohartzen, baina oinezkoen mugimendu handia zen orduan, ihesi zebiltzanak ziren anitz.

19. Aitareen gerrako istorioa

- **Erref:** PAA-001/019
- **Iraupena:** 0:04:55. **Hasi:** 00:41:46. **Bukatu:** 00:46:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika » II. Mundu Gerra \(1939-1945\)](#)

Laburpena:

Aita hogeita hamar urterekin berriz mobilizatu zuten gerra hasi zenean. Moselan egon zen soldadu. Alemanak Belgikatik sartu, atzetik inguratu eta milaka preso hartu zuten. Alemaniarak eraman, eta lanean jarri zituzten, laborariak laborari lanetan eta horrela. Aita bi etxaldetan egon zen, 40tik 45era arte, laborantza lanetan. Ihes egiten ahalegindu, atzeman, eta lekuz aldatu zituzten. Laborari bizimodua egiten zuten, etxaldean egunez, eta ostatuan gauetz. Esan daiteke ez zuela gerra bizi izan.

20. Aitak pare bat gutun hilean preso zegoen lekutik

- **Erref:** PAA-001/020
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:46:41. **Bukatu:** 00:47:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika » II. Mundu Gerra \(1939-1945\)](#)

Laburpena:

Aita, mobilizatu eta preso hartu artean, pare bat aldiz izan zen etxean

baimenarekin. Gero Alemanian preso zegoelarik, hilean gutun bat edo bi igortzeko eskubidea zuen. Herrian diru-bilketak egiten ziren presoek igortzeko.

21. Aita bisitan preso egondako etxaldean

- **Erref:** PAA-001/021
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:47:43. **Bukatu:** 00:50:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Aitak gutxi aipatzen zuen gerla. Hala ere, behin bera preso egondako etxaldeko familia bistatzen egon zen Alemanian, 30 urteren ondoren. Harrera beroa egin omen zioten. Aurrerakuntza handiekin, lehengo lanari jarraitzen omen zioten. Etxeko jauna Errusiako frontean hila zen, eta haren seme-alabak zeramaten etxaldea.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com